



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2022)

euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko
gradu amaierako lanak saritzeko

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko gradu amaierako bost lan saritzeko deialdia argitaratu zuen urrian. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa aukeratu izana saritzea da deialdi honen helburua.

Denera, bost lan aurkeztu dira deialdi honetan. Denak irakurri eta aztertu ondoren, epaimahaiak ondoko bi lanak saritzea erabaki du:

Elgoibarko 16-30 urte bitarteko gazteen hizkuntza mudantzak.

Egilea: Ane Iriondo Arizmendi

Pulunpa (e)ta Xin! Erdal jatorria duten ikasleentzako harrera-eta murgiltze-plana.

Egilea: Oier Guirado Irasuegi

Bilbo, 2022ko abenduaren 16a